

Odol-emaileei eskertza

San Juan bezperan, Andoaingo odol-emaileen elkarteak eskerrona adierazteko ekitaldia antolatu zuen / 7

AIURRI

Julen Gabirondoren garaipena

Gertukoek jakin badakite Mozotegiko mutila umila dela. Lehian hasten denean, ordea, plaza gizon handia dela erakusten ari da. Leitzako desafioan garaile irten zen / 8-9



Real Sociedad taldean ibilbide oparoa egin ondoren, bideo baten bidez agurra iragari du Naikarik / 10



Maddi Elizasu andoaindarraren eta Eneko Lete urnietarra arraunean bikain ari dira / 12



Susana Cencilloren Soinuak musika eskolaren agurra, Bastero Kulturguneko emanaldian / 4

barne

Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK
44€
2 m² / BEZa barne

GORDELEKUAK
97€
5 m² / BEZa barne

- ASKOTARIKO TAMAINA ETAZALERAK
- BIDIOZANTZA 24 ORDU
- SARBOE ETENGABEA

605713127

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA
Bulegoa: Muebles Ithurbe
barne.eus



Zutik ezkerretik: Iñaki Aizpuru, Joseba Iriarte, Enaitz Vazquez, Jon Mikel Mujika eta Iñaki Egibar. Makurturik ezkerretik: Jon Ander Belamendia, Joxema Setien, Josune Orbeago eta Gotzon Huitzi. AIURRI

Olagain Udal txistulari elkartea kalez kale ibili zen

Ekainaren 23ko iluntzean Zumea kaletik abiatu eta Goikoplazarako ibilbidea egin zuten, euripean

Erredakzioa ANDOAIN

San Juan zortzikoa kalez kale entzuteko aukera izan zen, Olagain Udal txistulari elkarteari esker. Egun euritsua izanagatik, ez zuten etsi eta aspaldiko tradizioa biziberritzea lortu zuten. Eguraldia txarra izanik, ez zituzten zaletu asko topatu bidean. Baina topatu zituztenak esker onez txalo egin zieten. Zumea plazako gune estalian egin zuten saioa, 21:30ak baino lehen. Ordurako euria gogotik ari zuen

Andoainen. Josune Orbeago txistulariak ekimenari jarraipena ematearen garrantzia nabarmendu zuen: "San Juan bezperan San Juan zortzikoa ez eskaintzea pena handia da. Iaz ere egin genuen zebait. Aurten bertan behera geratu dira jaiak, baina gure ekarpen txikia egin nahi genuen eta horregatik atera gara kalera". Euriari iskin egiten saiatu ziren, Goikoplazara iritsi arte. Kontzejupean azken saioa eskaini zuten, ez ohiko edizioan.



AIURRI

Trikitilarien kalejira

Jaiak ez dira ospatu Andoainen, baina herriko taldeek kalera ateratzeko ekimena izan dute. Leire Esnaolak zuzenduta, trikitilari gazteek saioa eskaini zuten San Juan bezperan, eguraldiak batere lagundu ez arren.



Axeriak eta txistulariak elkarrekin, saioa amaitu ostean ateratako taldeko argazkian. AIURRI

Axerien emanaldia San Juan egunean

Iazko edizioan Etxeberrieta edota Agustin Leitza plazara iritsi ziren axeriak. Aurtengoan Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian eskaini zuten dantza herrikoia. Ospakizun handirik egin gabe tradizioa biziberritzea lortu dute



Axeri Dantzako kapitaina da Izaskun Beraza. AIURRI



Miren Artetxe, Oihana Iguaran, Aner Peritz, Ane Labaka eta Agin Laburu. Belauniko, Unai Ormaetxea eta Aitor Mendiluze. AIURRI

San Juan giroko bertso saioa

Jairik ez da izan aurten ere, baina jaietako hainbat ekitaldiri tartea eskaini diote Andoain. Horietako bat bertso saioa da. Aitor Mendiluzek, hutsik egin gabe, sorterrira hurbiltzen jarraitzen du. Aner Peritz zarauztarrak saio txukuna osatu zuen

Xabier Lasa ANDOAIN

Bertso saioa ospatu zuten Andoain, San Juan egunarekin batera. Taulagainera igo ziren Miren Artetxe, Oihana Iguaran, Aner Peritz, Ane Labaka, Agin Laburu eta Aitor Mendiluze bertsolariak. Guztiak ere Unai Ormaetxea gai-jartzailearen esanetara aritu ziren kantuan.

Seikoteari bertso bat botatzeko eskatu zion Ormaetxeak saioaren hasieran, honako gaia jarrita: “Ekainaren 23a, udako soltzizioa, zaharrak sutan erre eta berriari tokia egiteko eguna izaten da. Zuek, kontatu bertso batean, zer gauza berriari egin nahi diozuen tokia zuen bizitzetan”.

Miren Artetxe:

Dena planifikatuta, denok agendari adi Arauak hemen ez sartu, arauak gehitxo dira, hi! Nik esperantza soilik nahi diot etorkizun hurbilari, ta leku pixkat egin nahi diot improbasazioari.

Oihana Iguaran:

Egin nahiko nuke festa ta erromerian gaubela. Kuadrilla besarkatuaz eten distantzi goibela. Iruditzen zait falta denera kasik ohituta gaudela. Len geneukana hartu nahi nuke berria balitz bezela.

Aner Peritz:

Nik ere botako det ba, begira pandemiara. Aspaldiko partez irten nahiko nuke parrandara. Ordutegia kendu lenbailen, aguro batean maskara. Sartu nahi deten garrantzitsuna zahar batzuk botatzea da.

Ane Labaka:

Gauean lo egin ezin, ia bihurtzen naiz harri. Ezetz esan leike baina nik ez det esaten sarri. Nere aurrean dirdirka zaude Ai, San Juan suzko garaia argi, neri estresak kendu zaidazu eta denbora ekarri.

Agin Laburu:

Len kritiko ginen baino gaur egunean igual du. Ez degu ezer kritikatzan ta neurriekin malgu. Zeri bidea itxi, edozer bide aukera ugaldtu. Nik bozalari kendu nahi diot eta hitzari zabaldu.

Aitor Mendiluze:

Zergatik jarri berria zarra erretzearen truke? Nik ez det berririk behar, lengoa zaindu nahi nuke. Tabladu hontan neu naiz zarrena, aurten berrogeita sei urte ta konforme naiz denen artean neu erretzen ez banaute.

ANDOAINGO BERTSO SAIOKO BIDEOAK IKUSGAI DAUDE AIURRI.EUS WEBGUNEAN

NIRE USTEZ



MIKEL ARBERAS KAZETARIA

Ostirala, Kolakaoa eta ohera



Egia esan, ez dakit oso ondo nola hasi artikulua eta nola deskribatu kontzertua. Denbora neraman Arrotxapeakoak entzuteko gogoz; gutxi gora behera, agerpen eta idatzi polemikoak egiten hasi zirenetik, badakizue, morboa-edo. Eta noski, promozionatzeko modu ona dute, sare sozialak baliatuz.

Eguna iritsi zen, ostirala, ilara luzea Ondarreta ikastetxeko sarreran eta gehingoak kanpokoak. Gogo handia nabari zen, “hype” handia sumatzen zen ikastetxearen inguruetan. Gutxinaka patioan sartzen hasi eta, hara! Ezezagun ugari. Ez da harriztekoa, erakarpen indar handiko taldea bilakatu baita. Esan beharra daukat, hasieratik nire zalantzak nituela ea Andoaingo Udala jakinaren gainean zegoen zer nolako kantuak egiten zituzten. Laburbilduz, nire ustez, famatuak egin direlako eta herriaren izena zabaltzeko baliagarria izango zirelako ekarri zituzten nafarrak; zeuek atera kontuak zergatik. Baina tira, nik gogo bizia nuen talde hau entzuteko, eserita bazen ere.

Kontzertua hasi eta Flako Fonki (Julen Goldazarena) eszenaratu zen, orain arte Chill Mafiak egindako kantu ezagunena jotzeko: Gazte Arruntaren Koplak. Ikusleak zorutzen, baina eserita, zoritxarrez. Ondoren, Kiliki Frexko (Beñat Rodrigo) eta Ben Yart agertu ziren. “Showmanak” zalantzarik gabe. Ez dakit guztia

planeatua egongo zen, baina janzkera, eszenaratzea eta esan beharreko guztia, bikain. Gauza bakarria falta izan zen kontzertuan, aukirik gabeko parranda giroa. Bizpahiru urte atzerako kontzertuen antzera.

Esanak esan, oharkabean pasa ez zitzaidan gauza bat mahaigaineratu nahi dut; gurasoekin kontzertua ikustera joan ziren umeak. Kantu polemikoak edo helduentzat landutako letrak. Gurasoak, hau entzunda zur eta lur geratuko ziren, seguruenik. Haurrak, berriz, letra askoren esanahia ulertu gabe kantuan jarri ziren, musikaren base bikainarekin eta eszenaratzearekin liluratuta. Beno, nire paranoia alde batera utzita, azken gauza bat goraiatu behar dut: musika. Gustatu ala ez, base musikal ona duen taldea da. Ez da bapatean sortu den zerbait, izan ere, soinu makinaren atzean daudenak finak dira, oso. Normalean, abeslariak soilik hartzen dira kontutan, baina niri, pertsonalki, eszenatikian eserita zeudenak harritu ninduten. Ez hori bakarrik, aukeratutako kantuak eta letrak ez dira nolanhikoak, ez dira ausaz aukeratutakoak; arestian esan bezala, badakite, bai, zer egin behar duten jendearengana iristeko. Ez dezala inork esan, musikari buruz ez dakitela ezer.

Amaitzeko, gauza bakarria eskatzen dut; hurrengoan Andoain kontzertu bat eman ez gero, Santakruzetan izatea. Geroko parranda andoaindarren esku.



AIURRI

Dantza garaikidea

Bakartxo Arabaolaza eta Joseba Pagolaren dantza eskolak ez du hutsik egiten, San Juan jaiak iristean. Aurtengo emanaldian protagonista nagusiak dantza eskolako ikasle gazteak izan dira. Dantza garaikidearen erakustaldia eskaini zuten, emanaldian zehar funky, afrohouse, urbanoa eta hip hop estilora gerturatuz. Saioaren amaieran ikasleen txaloak eta loreak jaso zituzten Bakartxo Arabaolaza, Marta Ezeiza eta Ibane Amigot irakasleek eta Maykel Rodriguez gonbidatu bereziak.



AIURRI



AIURRI

Soinuak musika eskolaren agurra

Ateak itxi ditu hogeita bat ikasturtetan haur eta gazteei musika irakasteaz gain Andoaingo bizi giroa aberastu duen Soinuak Musika Eskolak. Bere ikasleek larunbatean azken emanaldia eskaini zuten Basteron, eta bertan Susana Cencillo zuzendariari ondo merezitako omenaldia eskaini zioten. Hainbat musika eragilek eta musikariek esker oneko adierazpenak egin zituzten Basteroko oholtzan nahiz aurrez grabatutako bideo muntaiaren bidez. Susanak ekitaldiaren amaieran hitza hartu zuen, eta guztiei eskerrak ematez aparte, Ainhoa Aiertza aurkezleari txalo beroa eskaintzeko eskatu zion publikoari, "beti-beti hor dagoelako, nahi den guztirako herriko kulturaren alde". Datorren alean, Cencillorekin elkarrizketa irakurgai.



AIURRI

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Urki dantza taldea, saioa amaitu osteko taldeko argazkian. AIURRI

Urki dantza taldearen emanaldia Ondarretan

Ez ohiko ikasturtea izan bada ere, plazara ateratzeko kemena erakutsi du Andoaingo dantza taldeak. Askotxo izan ziren, gainera, eta horrek badu bere meritua. Ordu erdiko bideoa ikusgai dago Aiurri.eus wegunean



Ander, Eñaut, Beñat, Laida, Jone, Oihane, Unai eta Emilia. Guztiak lehengusuak; Naroa argazkian falta da. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



David Belver (tronboia), Eneritz Jauregi (flautina), Joxe Ramon Berrondo (fliskornoa), Joxe Mari Oiartzabal (zuzendaria), Iñaki Aizpurua (Hernaniko txistularien banda), Joxe Ramon Berrondo (fliskornoa) eta Imanol Iribarren (tronboia). Makurtuta: Manex Olazagirre (perkusioa) eta Oier Parada (saxoa). AIURRI

Txirri, Mirri eta Txiribitonen doinuei gorazarre

Joxe Mari Oiartzabalen zuzendaritzapean, Hernaniko Musika Bandaren eta Hernaniko eta Donostiako txistularien eskutik

Erredakzioa ANDOAIN

Kontzertuan Txirri (Xabier Otaegi), Mirri (Jose Ignazio Ansorena) eta Txiribiton (Txema Vitoria) pailazoek eta horien ondoren heldu ziren Txirri (Peru Ansorena), Mirri (Kattalin Ansorena) eta Txiribiton (Juanma Zaldua) Junior hirukoteak txalo zaparrada jaso zuen. Ez baita gutxiagorako, urtetan eta plazaz plaza zuzenean aritu baitira. 1972an ekin zioten, eta beraz 50 urte betetzear dira.

Jorge Pachecok zuzentzen duen Musika Bandan Urnieta-ko eta Andoaingo musikariak aurki daitezke. Hauexek: David Belver (tronboia), Eneritz Jauregi (flautina), Joxe Ramon Berrondo (fliskornoa), Joxe Mari Oiartzabal (zuzendaria), Iñaki

Aizpurua (Hernaniko txistularien banda), Joxe Ramon Berrondo (fliskornoa), Imanol Iribarren (tronboia), Manex Olazagirre (perkusioa) eta Oier Parada (saxoa).

Errepertorioa

Ekainaren 27an eskaini zuten kontzertua honako obrekin osatuta zuten: *San Juan Zortzikoa* (Herri doinua); *Pozaldi* (Felix Sistiaga); *Txistulariak* (Victor Zubizarreta); *Rapsodia vasca* (Vicente Beobide); *Errenka* (Jagoba Astiazaran); *Txirri, Mirri eta Txiribiton* (Jose Ignazio Ansorena); eta *Mendirik Mendi* (Jose Antonio Erauskin).

Emanaldiko hiru abesti bidez ikusteko aukera dago Aiurri.eus webgunean.



Txirri (Xabier Otaegi), Mirri (Jose Ignazio Ansorena) eta Txiribitonen (Txema Vitoria), ondoren heldu ziren Txirri (Peru Ansorena), Mirri (Kattalin Ansorena) eta Txiribiton (Juanma Zaldua) junior hirukotea. Haiekin batera Joxe Mari Oiartzabal. AIURRI



PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek osatzen dute gobernu koalizioa, 9 zinegotzirekin. UDALA

Udal gobernu taldearen balorazioa

Ekainean bi urte betetzen dira udal korporazioak osatu zirenetik. Andoainen EH Bilduk irabazi zituen hauteskundeak, eta zazpi zinegotzi eskuratu. PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek eskuratu zuten gobernuak, bederatziz zinegotzirekin duten gehiengoa baliatuz

Erredakzioa ANDOAIN

"Andoaingo Udalak baliabide tekniko, ekonomiko eta pertsonal guztiak erabili ditu egoerari aurre egiteko", horixe da Udal gobernuak kideek bi urteko balantzearen prentsa oharrean nabarmendu dutena. Izurritea aipatzea saihestezina baita, gizarte bizitzan bete-betean eragin baitu.

Udal administrazio orok lehenetasuna horretan jarri du, baita Andoaingoak ere: "Udalaren lehenetasunen artean, zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen kiko hurbileko arreta eta zuzeneko harremana mantentzeko ekintzak nabarmendu daitezke; kaleak, hiri-altzaria edo erabilera komuneko eremuak garbitze-

ko eta desinfektatzeko lanak areagotzea; egutegi fiskala birdefinitzea, epeak luzatuz eta erraztasunak emanez; eta autonomoei, merkataritzari, ostalaritzari eta antzekoei zuzendutako laguntza-lerroak abian jartzea".

Martxan daudenak

Martxan daudenak, hedabideetara bidalitako oharrean:

- Andoain elkarlanean dinamika eta aurrekontu parte-hartzaileen abiatzea.
- Terraza eta itxituren ordenantza eguneratzea.
- Jubilatuen Etxean egindako hobekuntzak.
- Andoaingo dendetan eskola-materiala erosteko laguntzak.

- Leitzarango parkeari lotutako "Turismo aktiboaren" eskaintza indartzea edo "Via Ferrata"ren berehalako irekiera.

Bidean datozenak

- Pertsona autonomoentzako edo lehen mailako mendekotasuna dutenentzako eguneko arretarako zentroa abian jartzea.
- Biribilgune Rikardo de Arregi eta Agustin de Leitza artean.
- Pump-track ibilbidea.
- Oria eta Leitzarain ibaien garbiketa eta leheneratzea.
- Erraldoien konpartsaren gomazko lehen figurak.
- Komun publikoak eta haurparkeak udalerriko auzoetan ireki edo berritzea.

UDALAK EGOERA ZAILA BIZI DUTEN HERRIKIDEAK LAGUNTZEA DU LEHENTASUNA

OTIETAN "VIA FERRATAREN" BEREHALAKO IREKIERA IRAGARRI DU UDALAK

RIKARDO ARREGI ETA AGUSTIN LEITZA ARTEKO BIRIBILGUNEA LASTER ERAIKIKO DUTE



Mari Jose Izagirre eskualdeko Garapen Agentziako lehendakaria da. AIURRI

Aldundiaren eta garapen agentzien arteko lankidetzeta

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta eskualdetako hamaika garapen agentziek lankidetzeta-hitzarmena berri dute

Erredakzioa ANDOAIN

Akordioa "Etorbizuna Eraikiz"en parte den Lurralde Garapenerako Laborategiaren sostengu nagusia da. Garapen agentzien aldetik, bertan izan ziren Beterri-Buruntza Udalak agentziako lehendakari den Maria Jose Izagirre eta zuzendari den Nerea Yurrebaso. Markel Olano Ahal-dun Nagusiak, bere hitzaldian, Gipuzkoako garapen agentziek lurralde garapeneraren alde egiten ari diren lana goraiatu du. Bere ustez, udalek sortutako erakunde hauek berebiziko garrantzia izan dute eskualdeen garapenerako. Hala ere, egungo munduan, "ezinbestekotzat" jo du elkarlana bultzatzea eta indarrak batzea, honela estrategia bateratuak garatzeko, "Gipuzkoa lurralde lehiakorragoa, kohezionatuagoa eta aurreratuagoa izan dadin. Eskualdeek ekarpen handia egin behar dute etorki-

zuneko Gipuzkoa eraikitzekeo prozesuan, Etorbizuna Eraikiz gidatzen ari den ahalegin kolektibo horretan". Hitzarmen hau oinarri hartuta, Etorbizuna Eraikizko Lurralde Garapenerako Laborategia izan da gobernantza irekiaren eta lankidetzaren eredu finkatu, garatu eta lurraldera hedatzeko erreminta. Azken lau urteetan eredu 200 proiektu baino gehiagotara hedatu da.

Bere aldetik, Ingurumen diputatuak eta bigarren diputatu nagusiorde den Jose Ignacio Asensiok azpimarratu du, eskualdeko agentziek lurraldearen garapenerako oinarritzko politikak sarean eta lankidetzan aritzeko duten garrantzia, batez ere jasangarritasun proiektuetan. "Plan horiek gauzatzea ezinbestekoa da gure mendekotasun energetikoa murrizteko eta eredu berri bat sustatzeko".





Omenaldia jaso zuten odol-emaileak, Andoingo alkatearekin eta Andoingo odol-emaileen elkarteko kideekin batera. AIURRI

Eskertza odol-emaileei

25, 50, 60, 75 eta 100 aldiz odola eman duten andoindarrei eskerrak emateko ekitaldia egin zuten udaletxeko batzar aretoan, San Juan bezperan. Joxe Mari Tolosa odol emaileen elkarteko ordezkariak adierazpen gogoangarria egin zuen, udaletxean

Erredakzioa ANDOAIN

Joxe Mari Tolosa Andoingo odol-emaileen elkarteko ordezkariak adierazi zuenez, "Elkartasuna erakusteko modu asko daude. Gurea odola ematea da. Gauza xumea irudituko zaio norbaiti. Baina osasuna eta bizia salbatzen ditu gure ekintza honek". Hona aurten nabarmendu diren odol emaileak:

- 25 odol-emate: Begoña Canflanca, Asier Hurtado, Gabriel Narciso eta Xabier Lasa.
- 50 odol-emate: Iñaki Agirre.
- 60 odol-emate: Isabel Santa Cruz.
- 75 odol-emate: Nicasio Murillo eta Ignacio Urdanpilleta.
- 100 odol-emate: Julian Zipitria.

Guztiek ere esker oneko oroigarriak jaso zituzten Mainer Lainez alkatearen eta Andoingo odol-emaileen elkarteko ordezkariaren eskutik.

Aldi berean, Andoingo odol-emaileen elkarteko bultzatzaileak izan ziren hiru herritar bereziki gogoan hartu zituzten, aurten bertan hil baitira: Maria Jesus Mendiluze, Joxepi Alduntzin eta Jose Antonio San Juan, hain

zuzen. San Juani oroigarri berezia eman zioten 24 urtez herriko elkarteko ordezkaria izan zelako; Xabier bere semeak jaso zuen oroigarria.

Joxe Mari Tolosaren adierazpena

Joxe Mari Tolosak egin zuen mintzaldian, odola ematearen ekintza deskribatu zuen, erraz ulertzeko moduan: "Gaur egun pozzgarria da Andoingo odolemaileen Elkartearentzat, Zorrak kitzeko eguna delako, eskerrak emateko eguna. Urtetan zehar, zitzon-zintzo, odola besteentzako ematera etorritakoei, gure eskerra eta aitortza adierazi nahi diegu. Iaz egitekoak ginen, bana COVID pandemia dela-eta, ezin izan genuen ekitaldia ospatu. Ez genuen ahaztuta, ordea, eta iritsi da eguna. Gaur bedezkariaren eskutik."

"ODOLA EMATEAK GU ERE LAGUNTZEN GAITU. PERTSONA HOBEAK EGITEN GAITU"

ratzi odol-emaile omentzen ditugu. Omenaldi xumea da hau, baina oso-oso sentitua. Zuen eskuzabaltasuna aitortu nahi dugu gaur. Izan ere, zuen artean badira hogeita bost aldiz odola eman dutenak. Badira gehiagotan eman dutenak. Baita ehun aldiz ematera iritsi denik ere. Denak dira garrantzitsuak. Bana-bana, guzti-guztiak dira ezinbestekoak, beste norbaiti laguntzeko. Emandako odol tanta bakoitzak beste bati gaitasunetatik suspertzen laguntzen diolako. Batzuetan, bizia ere ematen diolako. Elkartasuna erakusteko modu asko daude. Gurea odola ematea da gauza xumea irudituko zaio norbaiti. Baina osasuna eta bizia salbatzen ditu gure ekintza honek.

Eta gauza bat esan nahi nizeke bukatzeko: odol emateak besteie bakarrik ez, guri ere laguntzen digu. Pertsona hobeak egiten gaitu. Horregatik, zorionak zuei. Eta eskerrak asko, bene-benetan, zuen borondate onagatik eta zuen konstantziagatik. Bejondeizuela!"



POSTONTZIA

FIARE BANKU ETIKOA ANDOAIN

Andoingo Fiare taldearen ibilbidearen amaiera



Fiareko kideak, artiboko irudian. AIURRI

2015ean hasi zuen ibilbidea Andoingo Fiare taldeak, hainbat pertsonen bultzatuta, gure herrian finantza etikoei, eta ekonomia sozial eta solidarioaren inguruan informazio eta hausnarketa espazioak sortzeko helburuarekin.

2016ean antolatutako genuen lehen "Beste eredu ekonomiko bat, beste gizarte eredu bat" Azoka herriko hainbat talde, elkarte eta proiektuekin elkarlanean, baita ere Udalaren eta hainbat udal langileren laguntzarekin.

Urte hauetan hitzaldiak eta azokak antolatutako ditugu, udalarekin elkarlanean aritu gara mikrokredituen programaren sustapenean eta Finantzaz Haratago proiektua ere ikastetxeetara gerturatzen saiatu gara, kasu honetan gazteei finantza etikoen ikuspuntua gerturatzeak duen garrantziagatik.

Egin dugun ibilbidearen amaierara iritsi gara eta bidelagun izan zaituztegun guztiei gure eskertza adierazi nahi dizuegu, baita ere herriko bazkide, bezero eta

pertsona interesatuei ere. Ez ditugu ahaztu nahi gure ekintzen eta gure mezuen bozgorailu izan zireten herriko hedabideak.

Jakitun gara erabaki ekonomiko guztiak erabaki etikoak direla: ikusmolde sendo batetik hartutako erabakiak dira, eta ondorioak dituzte, batzuen onerako zein besteren kalterako.

Helburu hauetan oinarrituak dauden hainbat proiekturen loturak partekatuz agurtuko gara, informazioa izan nahi duenak eskura izan dezan:

- fiarebancaetica.coop/eu
- finantzaetikoak.eus/info/
- finantzazharatago.org/eu/hasiera/
- finanzaseticas.net/
- merkatusoziala.eus/azoka20/eu/ekonomia-solidarioaren-azoka-birtuala/

Gipuzkoako LETeko (FIARE Banka Etikako bazkideen) helbide elektronikoa helarazten dizuegu edozein zalantzarako: git.gipuzkoa@fiarebancaetica.org

Mila esker guztioi eta beste bat arte!

"EGIN DUGUN IBILBIDEAREN AMAIERARA IRITSI GARA ETA ESKERRAK EMAN NAHI DITUGU"

"JAKITUN GARA ERABAKI EKONOMIKO GUZTIAK ERABAKI ETIKOAK DIRELA"



Julen Gabirondo eta bere lantalde osoa pozarren zeuden. AIURRI

Plaza gizon handia, mutil umila

Julen Gabirondo herri kiroletako apustu munduko erreferente bilakatu da, Leitzako apustu zailean Zaldua aurkaria aise menderatuta; euskaldunon apustu grina agerikoa izan zen, 1.000 lagun inguru elkartu baitziren Don Martin Borda baserriko belazeetan

Andoni Urbistondo URNIETA

Julen Gabirondo Euskal Herriko herri kiroletako apustu munduko erreferente bilakatu da. Bazen segakoa, hirutan izan baita txapeldun, eta izateko bidean pentatloian, txapeldunorde izan baitzen azken ekitaldian. Apustu munduan ze neurri eman zezakeen erakustea bakarrik

falta zitzaion, eta ikusle, aditu, zale eta beste aho bete hortz utzi zituen pasa den larunbatean Mozotegi baserriko semeak. Apustua, berez, parekatua zegoelako atarian. Zaldua, aizkolaria. Gabirondo, segalaria. Batak eta besteak ikasi, trebatu egin behar izan duten diziplinako hobekuntzak desorekatuko zuen balantza.

Eta aizkoran ikaragarri hobetu du Goiburuko mutilak. Lehen apustua zelako, urduritasunaren preso geratzeko beldurra zuela aitortu zion Aiurri-ri Gabirondok pasa den astean, baina kontrakoa gertatu zen. Fisikoki sekulako indarra, baina borroka psikologikoan ere oso nagusi aritu zen. Ikusten edo sumatzen ez den

borroka horretan oso trebe aritu zen urnietarra. 20 kanaerdi-koetatik erdiak moztuta, 01:20ko errenta zeukan Zalduak. Eutsi egin zion atzerapen horri Julenek, eta azken bost enborretan ia dena jan, aizkora lanak dozena segundoko atzerapenarekin bukatzeko. Hutsaren hurrengoa. Julen konforme zen aizkora lau zapabost minutuko atzerapenarekin bukatu izan balu, baina segundo apur batzuk baino ez zituen galdu. Han ikusi zuen, gauzak normal, berea zela apustua, segan Zumarragako semea baino askoz trebeagoa delako.

Eta hala izan zen. Hasiera-hasieratik ikusi zen. Lehen sailean ia bi minutu jan zizkion urnietarrak. Bigarrena bukatzerako kolpea latza. Saila bukatua Julenek, eta Zalduari sail erdia baino gehiago, bukatzeko, oraindik. Julenek berak ere esaten du sarri, sega ez dela matematika, sailak azkarrago bukatzeak ez duela esan nahi aurkaria baino kilo gehiago biltzen dituzunik, baina belarra berbera, edo oso antzekoa da sail batean edo bestean, kilo gutxi batzuetako aldearekin. 670 kiloko aldea ateratzen zion Gabiron-

dok Zalduari bukaeran. Kilo asko da, sail erdia, edo gehixea-go, gutxi-asko.

Gabirondok aurkariari, eta bi orduko muturreko ahalegin fisikoari egin behar izan zion aurre. Bi ordu eman eta eman aritzea muturreko desafioa da kirolari onenarentzat ere, eta Zalduak eta Gabirondok atletak direla erakutsi zuten. Urnietarrak oinaze fisiko handiak jasan zituen aizkora lanak bukatuta. “Izterretatik justu samar ibili naiz aste osoan, eta gaur ere bai”, lanak bukatu ondoren aitortu zuen moduan. Giharrak luzatu, eta errezatu, mina handitu eta lesiorik gerta ez zedin, ezin zuen besterik egin. Izterreko karga atzean utzita, sabelaldean hasi zitzaion mina, artean apustua bukatzeko 20 minutu luze falta zirela. ETBn Juanan Legorburu esatariak esan bezala, Julen aitona zahar baten moduan ari zen segan, postura zurrunarekin, normal arituz gero giharrak bale esaten baitzion. Sailerako aldaketan agerikoa zen urnietarraren ibilera arraroa, baina horri ere buelta eman zion, azken 6-8 hilabeteetan egin duen prestakuntza lana ona izan dela berretsiz.

Eskaintza zerrenda luzea

Bukatu zuten, dopinaren kontrako kontrola ere pasa zuten, eta epaileak kalkulagailuak sustan. Ia ordu erdi pasa zen, kilo guztiak batzerako, han bildutako zale asko marmarka hasita zeudela. Epaia garbia izan zen, 670 kilo gehiago Gabirondoren zat. Telebistako izarren pare, han desfilatu zuen Mozotegiko morroskoak, umil-umil, Euskadi Irratiko Haritz Gallastegiren mikrofono aurretik, aurrena, eta ETBko Ibon Gaztañazpiren galde-eskeak erantzunez, ondoren. Belar biltzaile eta beste laguntzaile koadrila osoarekin elkartu zen gero, haien lana eskertuz. Aratz semea ere hartu zuen bizkarrean, eta Maitane emaztea eta Araia alaba ere ez ziren urrutiti. Ezta beste senide eta lagunak ere.

Ordurako Xabier Zalduarekin elkar besarkatu zen, giza legez, eta garaipena umiltasunez ospatu zuen, errespetuz beti ere. Dozenaka lore eta laudorio jaso zituen Julenek, eta denetan burua makurtu eta eskerririk asko esaten baino ez zuen asmatu, lotsatu antzean, halakoak en-



Julen Gabirondo desafioan garaile irten eta gero. AIURRI

tzutera ohitua ez dagoenaren seinale, umiltasunaren ispilu. Aiurri-ri esandakoen artean ere nekez onartu zuen aurrerantzean apustu etako erreferente bat izango denik, denek berari beldurra izango diotenik, ezta sekulako erakustaldia egin zuenik ere. Eman behar zuena ematen

URNIETARRAK GARAIPENA UMILTASUNEZ OSPATU ZUEN, ERRESPETUZ BETI ERE

saiatu zela esan zuen, gehienera, Julenek.

Julenek berak eta lan taldeak azkar batean jantzi zuten Mikel Garaialde zenaren omenezko kamiseta, matte zaitugu hitzak erakusten dituen. Gabirondok beti izan du gogoan Azkonobietan Berriko semea, lagun mina, minbiziak ebatsia 2018an, Garaialderen bultzadari esker hasi baitzen sega txapelketetan lehian. Leitzaan ere izan zuen, noski, gogoan: "Indar berezia ematen dit, sufrimendua muturrekoa denean. Gaur egun gure artean egon izan balitz nire aurkari

gogorrena izango zela badakit, gai handia zeukalako Mikelek, eta bere hutsuneak asko motibatzen nau daukadan guztia emateko".

Astelehenean oinazeak jota jarraitzen zuen Julenek. Gerri aldean omen zeukan min gehien. Ospakizunek samurtu dute apur

AIZKORAREKIN SEGUNDO BATZUK BAINO EZ ZITUEN GALDU, HORTXE HASI ZEN GARAIPENA



2018ko abuztuan galdu zuten laguna oso gogoan izan zuten. AIURRI

Mikel Garaialde "Indar berezia ematen dit, sufrimendua muturrekoa denean. Gaur egun gure artean egon izan balitz nire aurkari gogorrena izango zela badakit, gai handia zeukalako Mikelek, eta bere hutsuneak asko motibatzen nau daukadan guztia emateko".



Jendetza elkartu zen Leitzaan. AIURRI

Zergatik ez Xoxokan? Gipuzkoa eta Euskadiko Segatxapelketak jokatu dira orain. Urbistondok idatzi bezala, gauza ona litzateke Julenen lagun min Mikel oroitzeko moduren bat bilatzea. Herri kiroltako jaialdiren bat baino gauza hoberik ez, ziur aski, eta Goiburu auzoko festetan baino egokiago inon ez!

bat mina, eta Mozotegiko mutirik apustuak eta desafioak alde batera utziko ditu oraingoz. Gipuzkoa eta Euskadiko Segatxapelketak jokatu dira orain, aizkorako bigarren mailakoa ere bai, eta pentatloia ere iraila aldera. Hurrengo urtean larunbatean jokatu tamainako desafio edo apusturen bat gauzatuko ote den galdetuta, ezezkoan da Julen: "Ez da erraza izango, ez baikara hainbeste kirolari aizkoran eta segan neurria ematen dugunak. Eta beste kirol diziplina batzuk sartzea ere erraza ez".

Lehia pasata, bere auzoko festak iritsiko dira, Xoxokako festak, urrian. Itxuraz, eta pandemiak bereak eta bi egin ondoren, ohiko itxurarekin. Urnieta kirolari handiak ematen ari da hamarkada honetan, eta horietako bat da Julen Gabirondo, herriaren izena han eta hemen barreiatzen duena bere kirol jardunaren birtartez. Gauza ona litzateke Julenen lagun min Mikel oroitzeko moduren bat bilatzea. Herri kiroltako jaialdiren bat baino gauza hoberik ez, ziur aski, eta Goiburu auzoko festetan baino egokiago inon ez!



REALA

Nahikariren agurra

FUTBOLA Denboraldia amaituta, Nahikari Garciak agurra iragarri du. Zortzi urteren ostean Real Sociedad taldea utziko du, beraz. Bitartean, lehen taldeko kapitainak zenbaki borobilak utzi ditu taldean. 200 partidatik gora, eta dozenaka gol. Urnietako aurrelariak ibilbide berriari ekingo dio. Antza, Madril aldean legoke bere etorkizun hurbila.



SD EIBAR

Beñat Erkiziaren agurra

FUTBOLA Lehen mailako emakumezko ligan aritu da, Iker Dorronsororekin batera, Eibar taldean. Sareetan oharra zabaldu zuen, agurra iragartzeko: "Eskerrak eman nahi dizkiot klubari, nigan jarritako konfiantzagatik, eta nola ez lantaldeari, egunerokoagatik, eta jokalariei, aurtengo benetako protagonistei. Etapa berezia izan da".



Jon Gaztañaga. AEL LIMASSOL

Jon Gaztañagaren abentura berria

FUTBOLA Cultural Leonesa talde ezagunarekin bi urteko hitzarmena sinatu du

Erredakzioa ANDOAIN

Lehen eta Bigarren mailaren ostean, futbol federazioak denboraldi honetarako Primera RFEF delakoa sortu du. Maila horretan ariko da andoainarra, hurrengo bi denboraldietan. Uztailaren 12an abiatuko da leondarren denboraldia eta Jon Gaztañagak garrantzia handia har dezake talde horretan.

Ekainaren 28an Leongo klubak Gaztañagaren bideoa zabaldu zuen, sare sozialetan: "Pozarren nago talde handi batekin hitzarmena sinatu dudalako. Ziur nago gure lanarekin eta zuen babesarekin helburu guztiak lortu ahal izango ditugula. Aurrera Cultu!"



REALA

Nora Mendizabal garaile

PILOTA Andoaindarrak, iaz bezalaxe, Plazandreak txapelketan aurrera egiten jarraitzen du. Binakako partida irabazi zuen asteburuan, lehia estuan (12-11). Nora Mendizabal Olatz Arrizabalagarekin batera aritu zen. Abuztuaren 2ra bitartean, astelehenero ETB1n zuzenean eskainiko dituzte partidak. Taldekako txapelketa hau ligaxka eran lehiatzen ari dira.



GAZTELEKU

Goizuetan garaile

PILOTA Gazteleku pilota eskolakoek erakustaldia eman zuten Goizuetako txapelketan. Infantil mailan Mikel Gaztañaga eta Aimar Beroz gailendu ziren, nagusitasun osoz irabaziz (22-6). Nora Mendizabalek eta Miren Larrartek (argazkian) ere garaipen argia lortu zuten (22-6). Maila handia erakusten ari diren Gaztelekuko pilotariak, azken hilabeteetan.



Urnietako
udala

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.



ALIATUAQ:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.


AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GAZTELEKU

Gipuzkoako txapelkunak

PALA Andoainek Errenteriako EPLE taldea garaitu zuen Gipuzkoako pala txapelketako finalean (45-29). Andoaindarrek, oro har, nahiko erraz irabazi zuten, nahiz eta partidako lehen maldan galtzen hasi. Partidak aurrera egin ahala aurkarien gainetik igaro ziren Altuna eta Rekalde, eta txapel berria lortu dute.



@MARTIN__EARLY

Gipuzkoako Itzulia, Andoainen

TXIRRINDULARITZA Ekainaren 27an Gipuzkoako Itzuliaren etapa Andoainen amaitu zen. Aurtengoan, Ama Kandida etorbidean. Urteak dira lasterketa ezagunari tartea eskaintzen diotela Andoainen. Bereziki, Andoaingo Txirrindulari Eskolaren lankidetzari esker. Peru Alkain izan zen lehen andoaindarra. Haimar Etxeberriak irabazi zuen etapa.



Gari Iruretagoiena. IRURETAGOIENA

Iruretagoiena urpekaria Munduko txapelketan

IGERIKETA Zizurkildarrak Allurralde kiroldegiko igerilekuan egiten ditu prestaketa lanak

Erredakzioa ANDOAIN

Maila ona erakutsi du Iruretagoienak Belgadron, Indoor Apneako modalitatean. Zizurkildarrak lau probatan parte hartu zuen: aletarekin, aletarik gabe, estatika eta librean. Aletekin marka ona lortu zuen, Espainiako taldeko bigarren onena (179,8 metro). Aletarik gabe ere marka interesgarria lortu zuen (132,59). Zoritxarrez, estatikan kanporatua izan zen, protokoloa ez betetzeagatik; esan beharra dago, modalitate hau dela Iruretagoienaren espezialitatea. Monoaletaren eta bialearen modalitatean 174,6 metro egin zituen. Lorpen handiak eskuratzeko ari da.



Gabirondo, artxiboko irudian. AIURRI

Gabirondoren hitzordu bikoitza, asteburu honetan

Larunbatean Nafarroako Etxalekun ariko da, eta igandean Asteasun

Erredakzioa URNIETA

Larunbat honetan Nafarroako Imotz bailaran ariko da, Etxalekun, Euskal Herriko XII. Bakarkako Segala Ligako azken saioan. Almitza txapelketako irabazleak erabakiko dira bertan. Gizezkoen mailan berdinduta doaz Julen Gabirondo eta Migel Mari Jauregi "Altzo", eta biren artean erabakiko da txapela.

Igandean, "Ohiko sega" izenburupean, Gipuzkoako txapelketa ospatuko da Asteasuko Bulano baserriko lursailetan. Buruz buru ariko dira Julen Gabirondo, Mikel Lizartza eta Jon Otegi. Eguerdiko 12:00tan hasiko da lehiaketa, eta ikusle modura joan nahi duenak Kutxaban bidez eskuratu beharko du sarrera.

Futbol kanpusa, Euskaldunaren eskutik

FUTBOLA Euskaldunak futbol kanpusa antolatu du 2009-2012 urte bitarteko gazteentzat. Txanda bakarra antolatu dute, uzta-laren 26tik 30era. Udako oporraldian kirola eta aisialdia uztartu nahi dituzte, goizez burutuko diren saioetan.

Denboraldi berriko taldeak osatzeko deialdia

ESKUBALOIA Datorren denboraldiari begira izena-emateko epea zabalik du Leizaran kirol elkarteak. Infantil (2008-09), kadete (2006-07), jubenil (2004-05) eta senior mailakoak (2003 eta lehenagokoak) deitu dituzte. Info: Leizaraneskubaloia.com..



- Astero zozketa: KMO produktuez betetako otarra.
- Saritutakoak: "Leio", "Ainara", "Joxemi", "Izaro", "Jonathan", "Odile", "Andriu" eta "Ane".





Maddi Elizasu eta Eneko Lete arraunean. XABIER GOIENETXEA

Exijentzia, goi-mailara iristeko bidean

ARRAUNA Maddi Elizasu eta Eneko Lete duela gutxi murgildu ziren arraunlarien munduan; baina denbora gutxian lorpen handiak eskuratu dituzte. Lanean jarraitzeko gogo bizia erakutsi dute datozen urteetan maila gorenean lehiatzeko

Mikel Arberas ANDOAIN-URNIETA
Zer da arraun olinpikoa?

Arraunaz ari garenean bi mota ezberdinduko genituzke; aulki mugikorrekota eta estatikoa. Mundu mailan arraun olinpikoa ezagunagoa da, baina Euskal Herrian guztiok ezagutzen dugun arrauna nabarmentzen da. Espainian, berriz, aulki mugikorrekota nagusiagoa da.

Nola murgildu zineten mundu honetan?

Oro har, inguruak arraunean ikusi eta probatzea erabaki genuen. Esan beharra dago, aurretiaz ez genuela kirol hau probatu, beraz, hasiberriak gara esan genezake, baina segituan hartu genion tamaina.

Hasiberria izateko lorpen handia da Espainiako txapelketan podiuma eskuratzea...

Ez genuen uste horrelakorik lortuko genuenik, izan ere, hasiberriak gara eta Espainian maila handia dago. Hala ere, entrenatzen jarraitu behar dugu, txapelketetan podiumak eta garaikurrak eskuratzen jarraitzeko.

"ORAINTXE AMAITU DUGU DENBORALDIA ETA IRAILEAN EHINGO DIOGU EKINGO DIOGU BERRIRO"

Aurrera begira lehiaketaren bat duzue?

Egia esan, ez. Oraintxe amaitu dugu denboraldia eta irailean edo urrian berrekingo diogu. Azkeneko lehiaketa Espainiako izan da.

Urte osoan zehar entrenatzen duzue?

Asteazkena izan ezik, egunero entrenatzen dugu. Astelehenetik ostiralera barrualdean entrena-

"ARRAUN OLINPIKOAN HANKEK GARRANTZIA HANDIA DUTE, ESERLEKUAK MUGITU EGITEN DIRELAKO"



Maddi Elizasu eta Eneko Lete. AIURRI

tzen dugu; hau da, gimnasioan edo ergometroarekin. Fisikoa lantzen dugu. Asteburuak, berriz, uretan entrenatzeko baliatzen ditugu. Eta oporretan gaudenean, maizago entrenatzen dugu uretan.

Arraunlari izatea gogorra al da?

Maddi Elizasu: Entrenamenduak gogorak dira arraunean. Gainera, nire kasuan, atletismoarekin partekatzen dut; baina askok uste dutenaren aurka, dietaren kasua ez da arraunlari estatikoen antzerakoa. Egia da, ondo jaten eta forma mantentzen saiatzen garela, baina ez dira horren zorrotzak. Errendimendu ona edukiz gero, ez dira gai hauetaz kezkatzen.

Nolakoak izaten dira entrenamenduak?

Eneko Lete: Astelehenetan ergometroarekin entrenatzen dugu; serie luzeak jartzen dizkigute, esaterako, ordubetekoak bost zatitan banatuta. Gorputza sendotzeko ariketak ere egiten ditugu, beste askoren artean, lasterka, eserialdiak, pesak edo plantxa deritzona.

M. E.: Asteburuetan uretan entrenatzen dugu, zortziko edo lauko batel batean; helburua teknika eta koordinazioa lortzea da bereziki.

Zertan oinarritzen dira txapelketak?

Orion eta Legution izaten dira Euskal Herriko txapelketak. Aurten kasualitatez Espainiako ere Legution ospatu da. Txandatan egiten dira lehiaketak eta talde bakoitzak batel ezberdinak ateratzen ditu; batetako, biko edota handiena, zortziko.

Arraunlari bakoitzaren kokalekuari dagokionez, lehen eta bigarren postua, aurrekaldean kokatzen direnak ez dira oso pisutsuak izaten. Ez hori bakarrik, arraunlari finak izan behar

dute, izan ere, taldekideek hauei jarraituko diete. Erdialdean, handienak eta indartsuenak jartzen dira, batela hobekiago mugiarazteko. Atzealdean, berriz, arinenak kokatu ohi dira. Azkenik, arraunean aritzeko bi modu berezi beharko genituzke; hau da, arraun batekin edo bikin lehiatu gaitzke. Bi arraunekin lehiatzeko lauko batelak egon daitezke edo zortziko, lau alde batean eta lau bestean, arraun bakarrarekin.

Zertan bereizten da guztiok ezagutzen dugun arrauna eta olinpikoa?

Ezberdintasun ugari daude, baina nabarmenena eserlekua da. Euskal Herriko arraunean eserlekua mugiezina da, fijo da. Olinpikoan, berriz, hankek garrantzi handia dute, eserlekua mugitu egiten delako. Aulki mugikorraren kasuan, indar gehiena hankekin egiten da, eta portzetaia oso murriztean besoekin eta bizkarrarekin egiten da azken bultzada. Guztiok ezagutzen dugun arraunaren aurkakoa da, eta indar gehiena besoekin eta bizkarrarekin egiten da. Teknika oso ezberdinak dira.

Arraun olinpikoan zein postuetan lehiatzen duzue?

M. E.: Lemazaina naiz. Nire helburua taldea animatzea, zuzentzea eta koordinatzea da. Akatsen bat ikusiz gero, nire lana zuzentzea izango litzateke. Taldearen agintaria naizela esan genezake. Ez hori bakarrik, batela gidatzearen ardura nirea da.

E. E.: Ni batez ere arraun bakarrarekin lehiatzen dut eta asko pisatzen dudanez, erdian kokatuta egiten dut arraun. Aurrekoekin ahalik eta ondoen koordinatzen saiatzen gara eta Madiren zuzenketak baliatuz taldelana hobetzen ahalegintzen gara.

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Etxe ibiltariz inguratuta bizi da Ainara Etxarte. Bere anaia-arekin batera, Andoaingo Itsas Mendi Karabanak enpresan egiten du lan, orain lau bat hamarkada gurasoek sortu zuten familia-negozioan, hain zuzen. Pandemiak pandemia, zutik dirau Itsas Mendi Karabanak dendak, beso zabalik, uda ate joka den honetan, bes-telako esperientziak bizi nahi dituen jendearen esperoan.

Zein motatako ibilgailuak dituzue Itsas Mendi Karabanetan?

Askotariko ibilgailuekin egingo du topo hona gerturatzen denak: lehenik, kotxeari atxikitzen zaizkion karabanak ditugu, campingera joan nahi duten horientzat. Bigarrenik, *camper* delakoa ere badugu gurean, hots, 5,40-6 metro bitarteko hornitutako furgoneta. Azkenik, autokarabanak dira gure ibilgailu handienak, 6,30-7,30 metro bitartekoak.

Karrozeriari dagokionez, ha-maika enpresarekin egiten dugu lan: Eriba (Alemania), Benimar (Peñiskola), Hymer (Alemania), Etrusko (Italia) eta Pilote (Frantzia), besteak beste. Aldiz, motorretan, oro har, Fiat eta Ford markekin egiten dugu lan, baita noizean behin Mercedesekin ere.

Normalean, orain, ibilgailu berriak ditugu salgai. Izan ere, egoera dela-eta, ez dira gugana iristen bigarren eskuko produktuak, bezeroak saldu egiten baititu internet erabilia. Halaber, salmentaz gain, tailerra ere badaukagu, konponketalanetarako. Osagarriak jartzen ditugu, adibidez: tolloak, eguzki-plakak, bizikleta-euskarriak, hozkailuak... Garai batean alokatzeko aukera ematen genion bezeroari; dena den, egun, ez daukagu zerbitzu hori eskuragarri.

Askotariko bezeroak gerturatzen dira zuenera, ezta?

Denetatik izaten dugu: bikote gazteak, familiak, pertsona bakarrak, erretiroa hartu berri dutenak eta abar. Azken horiei dagokionez, autokarabanatik *camper*-era igarotzeko joera dute. Turismo aktiboari begira, erosoagoak dira errepidean aritzeko, alegia, hain zabalak izan ez arren, errepide jakinetarako aproposagoak dira.

Karabanarekin campingera joaten da jendea. *Camper*-arekin



Ainara Etxarte. AIURRI

“Askatasuna ematen dizu autokarabanak”

AINARA ETXARTE ITSAS MENDI KARABANAK

Hornitutako furgonetetatik hasi eta autokarabanak bitarte, eskaintza zabala du Andoaingo negozioak. Salmentaz gain, ibilgailuen konpoketa ere egiten dute

nahiz autokarabanarekin, berriz, aukera hori ere badago, baina bidaiatzeko erabili ohi dira bi ibilgailu horiek, eremu jakinak daude-eta horientzat. Hemen, Euskal Herrian, ez da askorik ikusten, baina Frantzian zein Alemanian, esaterako, oso ohiko da.

Bidaia motari dagokionez, askotarikoak izan daitezke; zenbaitetik nahiago dute hondartza; beste hainbatek, ostera, mendia. Nork bere gustuetara egokituta bidaiatzeko aukera ematen du. **Oro har, zein litzateke zure ustez ibilgailu horiekin bidaiatzeko urteko sasoirik onena?**

Aste Santutik uda bitarteko denboraldia oso ona dela uste

dute, baina aukera izan behar da horretarako. Gehienbat, jendeak uztailen zein abuztuaren antolatzen ditu bidaiak, eta, ondorioz, zailagoa da lekuak topatzea, jende pilaketak medio. Iraila ere sasoi interesgarria da.

Bestalde, neguan joera handia dago, astebururo jotzen baitu jendeak eski-estazioetara.

"NORK BERE GUSTUETARA EGOKITUTA BIDAIATZEKO AUKERA EMATEN DU"

Pandemiak eraginik izan al du zuen jardunean?

Itxiera perimetrara ezarrita zegoenean guk zabalik izan genuen, baina telefonoak ez zigun jotzen kasik. Hala, astean pare bat bisita izaten genituen, aurrez lotutakoak, gainera. Geldituta egon da; alabaina, aurretik interesa agertu zuten bezero batzuk genituen. Beraz, zenbait salmentaz egitea lortu genuen, jende oso zehatzari, baina.

Joera mantendu delakoan nago, nahiz eta komunikabideek esan izugarritzko igoera egon dela. Izan ere, egunetik egunera ez duzu erabakitzen sekulako inbertsio ekonomikoa egin nahi duzula horrelako ibilgailu

batean. Mugimendua egon, egon da, baina ez esaten duten adinakoa, alegia, uda guztietan egoten da ibilgailu mota horien eskari handia. Horrez gain, zenbait eskaera atzeratu egin behar izan dira, eta 2022. urterako aurreikusitako batzuk ere kendu egin dizkigute: denboraldia hasi aurretik aurreko urteetan baina mugatuago gaudete.

Pandemiaren atzetik datorrena ez dugu ikusten, baina egoera ez da erraza. Piezak falta dira, baita lehengaiak ere: egurretik hasi eta burdinera bitarte. Horrek guztiak prozesua mantsotzea eragingo du, zenbait enpresek, besteak beste, ekoizpen-prozesua geldituta dutelako. 2022. urteari begira, ezjakintasun handia sentitzen dugu.

Egoerari aurre egiteko diru laguntzarik jaso al duzue?

Guri ez dagokigu ezer ere ez: ez udalerrian, ez Euskal Autonomia Erkidegoan. Lehena merkatalgoei eta enpresei bideratuta dago, gehienezko fakturazio zehatz batekin. Gure kasuan, langa gainditzen dugu, ibilgailu bakarrarekin 50.000 euroko fakturazioa egiten dugulako, nahiz eta irabazia ez izan hori. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, erakundeak automoziora begira emandako dirulaguntzetan ere ez gara sartzen. Ahaztutako sektorea gara, eta, orain, are gehiago nabari da hori.

Euskal Herrian nabari al duzu ibilgailu mota horiekiko zaletasuna?

Jakina, betidanik, gainera. Haurtzaroko oporraldiak horrelako ibilgailuetan igaro izan dituzten bezero asko ditugu. Orain, behin nagusituta, zaletasuna transmititu nahi diete beren seme-alabei. Bizipena errepikatzeke gogoz gelditzen da behin esperientzia probatu duena.

Zer du berezitik autokaraban egindako bidaia batek?

Oroitzapen politak ditugu anaiak eta biok gure haurtzaroz, zeren campingera joaten baikinen sarri. Nik orain autokarabana daukat, eta askatasuna ematen dizu bertan bidaiatzeak: haurrek poz handiz hartzen dute bidaia bat egitea proposatzen diegunean, izan ere, bostak batera egoteko aukera ematen digu. Beste patxada batekin egiten dituzu planak, era inprobisatuagoan bidaiatzeko aukera ematen duelako.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 1

ESKUALDEA Zerbitzu berria

Lurraldeusek ibilbidea eta ordutegia berri du. Informazio gehiago aurki daiteke, 15. orrialdean.

Uztailaren 1etik aurrera.

ANDOAIN Erakusketa

Andoingo Rock Jaialdia irudietan. Argazki erakusketak bi ardatz izango ditu: Andoingo Rock Jaialdia eta Nafarroa Plaza. Argazki guztiak J.A. Areta Goñi "Juxe"renak dira.

Azken eguna: Uztailak 3. Bastero.

URNIETA Udal informazioa

Lekaioko, Sarobeko eta Udal liburutegiko ordutegia egokitu dute.

Ordutegia: 09:00-14:00.

URNIETA Lan eskaintza

Onbizi merkataritza-elkartea merkataritza dinamizatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko den pertsona baten bila dabil. Lanaldi erdiko hitzarmena eskainiko zaio aukeratuari, sei hilabeteko iraupenarekin.

Info: urnietaonbizi@gmail.com.

LARUNBATA 3

ANDOAIN Ekimena

Leitzaran bailararen garbiketa, boluntarioen laguntzarekin. Beharrezkoa da alde zurretik izen-ematea. Ibilzako arropa eta zapata erosoak eramatea gomendatzen da.

Ordutegia: 10:30-13:30

Leitzaran bisitarien etxea.



Verde Prato. AIURRI

ANDOAIN Maren eta Verde Prato zuzenean

Verde Prato Ana Arsuaga margolari eta musikagilearen bakarkako proiektua da. Maren ahotsa eta gitarra lagunduta igoko da taulagainera.

Uztailak 2, ostirala. 21:00. Goikoplazako frontoia.

IGANDEA 11

ANDOAIN Antzerkia

"Aqui va a pasar algo" antzezlanean Bi gizabanakok oroimena, oroitzapenak, historia, nortasuna eta mun- duan duten lekua ziurtatzen zieten ziurtasun guztiak galdu dituzte. Umorez beteriko antzezlan da.

19:00. Goikoplazako frontoia.


OSTIRALA 16

ANDOAIN Musika

Amak musika taldearen emanaldia, "Kale Giroan" zikloaren baitan. Alaitz Tellexea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano dira Amak eta disko berria aurkezten ari dira. Trikitixa eta panderoa lagun hartuta, emanaldi bizia eskainiko dute.

21:30. Goikoplazako frontoia.

ZINEMA



ANDOAIN

ONDARRETA

IKASTETXEA

UDA ZINEMA

KALEAN, UZTAILEAN:

Jumanji 3

Uztailak 1, osteguna.

22:00.

Espias con disfraz

Uztailak 8, osteguna.

22:00.

Agur Etxebeste

Uztailak 15,

osteguna.

22:00.



SINOPSIS



Jumanji 3

Zuzendaria: Jake Kasdan. **Aktoreak:** Dwayne Johnson, Karen Gillan, Jack Black, Kevin Hart, Awkwafina, Danny DeVito, Alex Wolff, Nick Jonas, Danny Glover, Colin Hanks. **Herrialdea:** AEB (2019).

Iraupena: 123 min. **Generoa:** Abenturak.

Dwayne Johnson eta lagunak

"Jumanji 3, maila bat gorago", horixe dio izenburuak jatorrian. Parte-hartzaileek aukera bakarra dute: partida arriskutsu honetan beste behin

jolastea benetan zer gertatzen ari den jakiteko. Dwayne Johnson aktore nagusi duen film-sortaren hirugarrena eskainiko dute Andoainean.

SINOPSIS



Espias con disfraz

Zuzendaria: Troy Quane, Nick Bruno. **Herrialdea:** AEB (2021).

Iraupena: 101 min. **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Ekoizlea:** Blue Sky Studios. **Musika:** Theodore Shapiro.

Marrazki bizidunak Ondarretan

Lance Sterling superespiaioa eta Walter Beckett zientzialaria ia kontrakoak dira. Lance lasaia eta adeitsua da. Walter ez. Gertakariak ustekabeko

bira bat ematen dutenean, Walter eta Lancek, bat-batean, elkarrekin konfiantza hartuko dute modu guztiz berri batean.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: **BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

w w w . a i u r r i . e u s

Astez asteko intzidentzia bi udalerrietan

ANDOAIN

- **Ekainak 23-29:**
4 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 26,69.
- **Ekainak 16-22:**
0 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 20,02.
- **Ekainak 3-15:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 86,74.
- **Ekainak 2-8:**
10 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 173,47.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:**
16 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 180,14.
- **Maiatzak 19-25:**
11 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 93,41.
- **Maiatzak 12-18:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 120,10.
- **Maiatzak 5-11:**
15 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 246,86.

URNIETA

- **Ekainak 23-29:**
8 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Ekainak 16-22:**
0 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Ekainak 3-15:**
8 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 257,69.
- **Ekainak 2-8:**
8 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 161,06.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:**
2 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Maiatzak 19-25:**
6 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Maiatzak 12-18:**
8 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 241,58.
- **Maiatzak 5-11:**
7 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 225,48.

Zerbitzu berriaren aurkezpena

Uztailaren 1ean hasita, Lurraldebus zerbitzu berria martxan jarri dute. Ibilbideen izenetan eta bidaien maiztasunetan eraldaketak izan dira. Asteartean herriz herri ibili ziren zerbitzu berria aurkezten

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako sailak zerbitzu berria martxan jarri du. Hogeita hamar autobus berrik hasiko dute eskaintza berria: hibridoak dira guztiak, alegia, aukera elektrikoan mugituko dira herriguneetan barrena. Herritik kanpo, ostera, motorra erabiliko dute.

Izenburu berriak

Berria	Zaharra
BU01	T1
BU02	T2
BU03	T3
BU04	T3 Amara
BU05	G2
BU06	G3
BU07	T5
BU08	T5D
BU09	T5D Osp
BU10	T6
BU11	G1
BU12	A1
BU13	A2
BU20E	G6

Arreta zerbitzua:

- 900 300 340.
- Orduetgia: 08:00-20:00.



Makaldegian eta Idiazabal kalean zerbitzu berriaren berri eman zuten. AIURRI



QR kodigoan ibilbide eta ordutegi berrien PDFa. AIURRI

Porrotx pailazoari eskertza

Leizaran institutuak eskertza adierazi zion "Porrotx" pailazoari, urtero egiten den bisitaldiagatik. Andoainera hurbiltzen da bertako ikasleen aurrean saioa muxutruk eskaintzera. Argazkian, ikasle eta irakasleekin batera ekainaren 17an. Bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean.




ZORION AGURRAK



LARRAUL Nahia Barandiaran Gonzalez
-Ur, datorren uztailaren 10ean 5 urte beteko dituzu!
-Yuju!
Muxu handia, amona Espe.



ANDOAIN Zorionak Ur!
-Ur, datorren uztailaren 10ean 5 urte beteko dituzu!
-Yuju!
Muxu handia, etxekoak.



ANDOAIN Zorionak Malen
Malenek 9 urte bete zituen ekainaren 18an. Ondo pasa zenuelakoan! Asko maite zaitugu! Etxekoak.



ANDOAIN Manex Mendizabal
Zorionak Manex! Ondo ospatu zure urtebetetzea! Muxu handiak, amona Miren eta aitona Estebanen partetik.



ANDOAIN Zorionak Nere
Nerek 6 urte beteko ditu uztailaren 10ean. Festa polita egingo dugu! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Etxekoak. Andoain.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37.
- diseinua@aiurri.eus.
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain.
- **943 300 732.**

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.



FRANTZIAKO TOURRA

AIURRI.EUS | @aiurri



GIPUZKOAK BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,
**Europar
desberdintasun
maila txikienetariko**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa